

Atzokuak biharko gordetzen: www.ahotsak.com

Interneten webgune barrixa aurkeztu dau "Badihardugu" k, Debabarreneko Euskara Taldeak: www.ahotsak.com. Bertan Ermua eta Mallabixan batutako hainbat elkarrizketa eta hizlarixen barri emoten da. Entzungai dagoz batzuk eta prozesuan beste asko: grabaziño barriak, zaharrak, bideoan edo kasettean grabautakuak, juanda edo gure artean dauazan pertsona ezagunenak...

Igaz hasi zan Badihardugu eta Euskal Birusaren arteko elkar-lana; bilarako euskara talde guztixak batzen ditxuan talde horren laguntza, aholku eta infrastruktura erabiltzeko aukera mosutruk jaso eban Ermukuak. Eindako grabaziño zaharrak kontserbau, digitalizau eta artxibatiaz gain, barriak eitxen juateko pau-

suak emon ziran. Euskal Birusak, 70 urtetik gorako pertsonen grabautako 60 kasetteko zintxa zitxuan gordeta 1994tik aurrera eta horretxek ordenan ipintzeak emon dau biharrik haundiña: banan-banan digitalizau alperrik galdu ez daitxezen, CDetara pasau, zintxa bakoitzaren hizlarixekin egon, erretratau, bere biografixia osatu; zintxia entzun iraupe-



Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA

J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA


MIGUEL Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería TITANIK



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Hizlaria: Martina Uriarte Aranburu. Ahotsak

<http://www.ahotsak.com/mallabia/hizlaria/1384>

Aukerak: ES • EU • Euskaletan • 3000 • Elhuyar • Hiztegi Batua • Harluxet • Wikipedia • Mokoroa • Intza • Ereduzko prosa • K...

ahotsak.com

Hemen zaud: [Gazteak](#) • [Mallabia](#) • [Hizlaria: Martina Uriarte Aranburu](#)

Martina Uriarte Aranburu
(Mallabia, 1917/10/24)

Biografia

Mallabiko Estakua baserrian jaio zen 1917an. Eskolara Mallabira, herrira eta Artixeko auzo-eskolara joatea egokitu zitzaion. Joakin eta Lorenza bere gurasoak izandako 9 seme-alabetatik, bera izan zen etxeko gaztea. Ermura ezkondu zen, Pablo Arana berriztarrarekin eta bi dira andra-gizonen seme-alabak. Ermuan 9 urte eman ondoren, Elbarrera joan zen bizi izatera. Ederto gogoratzen eta kontatzen ditu umetan zein gaztetan ikusi eta bizi izandakoak. Elbarrera bertakotuta 50 urtetik gora egon arren, bere jatorrizko Mallabiko hizkeran egiten du berba.

Zintak

	Kanala	Data	Iraupena	Proiektua
1.	MAL-043	2008	85	Ermuko eta Mallabiko "Drogetenituri" aldizkaria
2.	MAL-044	2008	40	Ermuko Ahozko Ondarea
3.	MAL-043	2008	85	Ermuko Ahozko Ondarea

Eginda

na jakiteko eta, zeren gaine-an berba egiten daben ikusitxa, izenburua ipini; hilda dagozenen kasuan, familixia-kin jarri kontaktuan biografi-xia adosteko eta argazkiren bat jiratzeko... Zaharrak artxibatzen juatiaz gain, barriak grabatzeko erronkari heldu jakon: 2007tik hona 51 bideo eta mini-disk grabau izan dira Mallabia eta Ermuan. Bigarren fasiari las-

ERMUA	
Hizlarixak	36
Grabaziñuak	56
Audio zatixak	5

MALLABIA	
Hizlarixak	31
Grabaziñuak	48
Audio zatixak	66
Transkripziñuak	112
Bideo zatixak	66

BESTE HERRI BATZUK	
Hizlarixak	13
Grabaziñuak	7

ter helduko dotsagu: horrek guztixok kodifikatzia, miñutuz-miñutu zeren gainian berba eitxen daben jasotzia eta azkenian, esandakuaren zatitxo batzuk aukeratuaz, Interneten entzungai ipintzia.

Ermuko Ahozko Ondarea izenburuak herri askotako hizlarixak batzen ditxu: Mallabia, Eibar, Zaldibar, lurreta, Ziortza-Bolibar, Markina, Etxebarri, Azpeitia, Ibarrangelu... Mallabiko orrixan datozenak, 2007a baiño lehen grabautakuak dira eta zintxa asko dagoz entzun eta ikusteko moduan. Ikusi nahi ez-kero, www.ahotsak.com orrixan HERRIA edo HIZLA-rlaren abizenetik topau leike bateron bat.

Galdetegi orokor bat pres-tau dogu. Zeren gainian gal-detzen dan? Ba eskolia, olge-tak, gazte denporak, xele-brekerixak, kantuak, jaixak,

antxiñako ofizixuak... Testi-gantzeta eta bizipen desberdi-nak batuaz, gerra aurreko eta haren ondorengo bizimo-du eta historiaren puzzlia osatuaz goiaz.

Euskal Birusak eskertu nahi dotsue egitasmo hau aurrera eruatia posible ein dozuen hizlari eta senitarte guztixoi, erakutsitako ilusiño eta la-guntzeko gogugaitxik. Bate-ron batek bere senide edo ezagunen bat elkarrizketa-tzia nahiko balu, gurekin kon-taktuan ipintzia daka 943/179350 telefonura dei-txuta.

Euskal Birusa



TESTIGANTZAK

"Burdixakin eruten zan arriua. Eruaten eben ohia, sobrekama zurixak horrek flekuekin eta, gainian bota-ta... ehunezko izarak...Ta burdixai kirristadia ipintzen jakon, kirrin-kirrin-kirrin-kirrin zaratia ein deixan; errobe-rak irrintzika eitxe eben ta gero soñu-jotailliak atze-tik, panderaua jotzen eta kamiñuetara urtenda jende guztia. Eztegu-bazkarixa gero."

"Ongarain be sagastixa euan Kurutzia esaten jakon lekuan. Ikastolan gainekal-diari Kurutzia deitze otsen hiru bide euazelako. Ni mutikua ta esaten eben sor-giñak euazela, behinobehin sorgiñak ikusi zitxuela han-dik. Igual geu bildurtzeko esango eben! Ze sorgin ibi-lliko zan ba, bi hankakuak bai ugari".

"Atzamar txixixe basora juen! honek egurre ekarri / bestionek sartaiñen ipiñi / gero arrautzie erre ta potoluonek dana jan! Horrek baiña nik ahaztute! Zemat urtien nik eztotena horrek gauzok eiñ! Neure umiei kantu asko kantatzen notsien, gogue euki be!".

"Atien eukitzen genduzen arantzietan urte batien ta lexarra bestien, kurutzia-txue ipiñitte. Eta harekin eitten genduen San Juan sue, orduen halantxek akostunbratzen genduen ta. Oin be, ointsura artien be, eitte izan dabe gurien".

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGAÑA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

- Akordeoia	- Klarineta
- Biolina	- Panderoa
- Biolontxelo	- Perkusioa
- Bonbardino	- Pianoa
- Flauta	- Saxofoia
- Kantua	- Trikitrixa
- Gitarra	- Tronboia
- Gitarra elektrikoa	- Tronpeta
- Gitarra baxua	- Txistua
- Lengoia musikala	